

ARITZATXUKO KANTINAREN EMAKIDA ESLEITZEKO OINARRIAK**2020ko udaldia****1.- XEDEA**

Oinarrien helburua da Aritzatxuko kantinea ustiatzeko emakida esleitzea.

2.- PARTE HARTZEKO GAITASUNA.

18 urtetik gorako pertsona euskaldun danek parte hartu ahal izango dabe ustiapen horretan, jarduteko ahalmen osoa badaukie, eta ez badaukie Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legearen 71. artikulua ezarritako kontratatze debekurik. Era berean, beharrezkoa da administrazio honeguz zigor-espediterik edegita ez eukitea, ezta zorrik izatea udalagaz

3.- EMAKIDAREN IRAUPENA

Emakida Ekainaren 15etik irailaren 30era artekoa izango da, biak barne. Epe hori luzaezina izango da eta hori amaitu ondoren, gunea lehengo egoeran itxi beharko da, garbi eta guneari kalterik sortu bari., Horretarako udalak jagokon ikuskapena egingo dau. Ezelako kalterik sortu balitz, gastuak esleipenaren kontura izango dira.

Epe horretan interes publikoagaitik udala behartuta egongo balitz emakida bertan behera ixteko, esleipedunak jagokon konpentsazio ekonomikoa hartzeko eskubidea izango dau.

4.- ESLEIPENERAKO SISTEMEA

Esleipenerako sistema ZOKKETEIA izango da.

Zozketa 2020ko ekainaren 10ean, goizeko 12:00etan, Bermeoko Gizarte eta Kultura etxeko Hitzaldi aretoan egingo da.

Interesdunek jarraipena egin ahal izango dute streaming-en bidez edota Bermeoko Udalak adieraziko duen erreminta telematikoen bitartez.

5.- ENKANTE MOETEA ETA BERMEA

Ez da enkante moetarik ezarten, izan be, emondako ustiapenaren gizarte interesagaitik eta emon beharreko zerbitzuak eta jaso leikezan kontraprestazioak kontutan eukita, erabilpen ekonomikoa garrantzibakoa dalako.

1

Zerbitzu Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9129 Faxa: 94 688 1102
zerbitzuak@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J

2020_aritzatxuko
kantina_bhbt_zuzenketa.doc



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E40004456E00E0M2P6O9M4X3

Sinadurea eta data

IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 01/06/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/06/2020
13:17:18

EXPEDIENTE ::
2020IDA_DEK0652
Data: 25/05/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



Emakidearen esleipendunak, bere gain hartutako beharrak beteko dauzala bermatzeko, behin betiko bermea jarri beharko dau. Berme horren zenbatekoa **200** eurokoa izango da. Berme-epea amaitzen danean, esleipendunari bermea itzuliko jako, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badagoz.

6.- PROPOSAMENAK

- Proposamenak aurkezteko epe amaiera: 2020ko ekainaren 9ra arte.
- Eskaintzak aurkezteko modua:

* **TELEMATIKOKI:** Bermeoko Udalaren Egoitza Elektronikoa

* **BERHAZ BULEGOAN:** AURRETIAZ HITZORDUA ESKATUTA

Hitzordua eskatzeko aukera bikoitza:

1.- **010 telefonora** deituta (946179100 Bermeotik kanpo deitezketan).

2.- **010@bermeo.eus** helbide elektronikoa hitzordua eskatuta.

Proposamenak gutun-azal bakar baten aurkeztuko dira eta honako dokumentazioa sartu beharko da:

- Eskaera (I eranskina)
- Eskaintzaileen (edo ordezkariaren) NANA edo baliokidea. (ustiapena talde batek egingo balu, talde horretako partaide guztien dokumentazioa aurkeztu beharko da) (*)
- Ustiapena egiteko eukiko dauzan langileak.
- Kontratatzeko debekurik ez eukitzea, eta udalean zigor-espediterik edegita ez eukitea, eta zorrik ez izatearen zinpeko aitortpena. (II eranskina)

() Eskatzaileek ezin izango dute eskari bat baino gehiago egin, hau da, eskaria banaka edo talde baten bidez egiten bada, ezin izango da beste talde baten partaide izan. Horrela izango balitz Bermeoko Udalak partaide agertzen den eskaintza guztiak baztertzeko aukera izango luke.*

Esleipena egin baino lehen, proposatutako lizitatzaitzaileak behin betiko bermea jarri izanaren ziurtagiria eta izango duen jardueraren erantzukizun zibilaren polizaren kopia aurkeztu beharko ditu. Hori egin ezean, esleipenari uko egiten diola ulertuko da.

7.- EMAKIDADUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK



COVID-19ak eragindako pandemia egoerari aurre egiteko unean uneko Aginte Sanitarioaren arau guztiak bete beharko dira, kantinen ustiaketa zein instalazioen garbiketa eta desinfekzio lanei dagokienez.

Emakidadunak honeek eskubideak eta betebeharrak eukiko dauz be bai:

a) Kantinea jentearantzako zabalik egongo da egunero, 10:00etatik 20:00etara, **eta ezelan be ezingo da zabalik egon ordu horretatik aurrera.**

b) Kantinea, gehienez be, hilean 2 egunetan egon ahal da itxita, horretarako aurretiaz udalak baimena emon badau eta erabiltzaileei abisua emon bajake, gitxienez, 2 egun arinago. Egun horrek ez dira metagarriak izango. **Kantinea itxita dagoan egunetan be komun publikoak garbitu beharko dira.**

c) Esleipenaren epean, esleipendunak komun publikoak Osasun Agintariak jarritako irizpideen arabera **garbiketa eta desinfekzio lanak** egin beharko dauz, **gutxienez lau bider egunean**, baita kantinea zein instalazioen inguruak be.

Edozein kasutan, jardunaldi osoan zehar, komunak baldintza sanitario egokian mantenu beharko dauz. Osasun sailak zein Bermeoko udalak jarritako irizpideak zorrotzasunez jarraitu beharko dira.

Halaber, egunero, kantina eta zerbitzu-eraikinaren inguruan garbiketa eta desinfekzio lanak bideratu beharko dira Bermeoko Udalak finkatutako irizpideak jarraituz eta hornitutako baliabideak eta produktuak erabiliz (eskuko motxila pulberizatzailea, biruzidak...).

d) Ustiapena pertsonalki egin beharko da, dokumentazioan zehaztutako giza baliabideen bidez, eta ezelan be ezingo da ustiapena errentan emon edo beste bati laga.

e) Instalazioak eta emakidaren guneak egoera onean mantendu beharko ditu esleipendunak. Instalazioak, horreen inguruak eta hondartzea garbitzetik sortutako sastarrak dagozkien edukiontzietan utzi beharko dira.

Esleipendunak jarduerak sortutako sastar guztiak batu, jagokon bereizketa egin eta adierazoten jakon kontenedoretan itzi beharko dauz.

f) Esleipendunak berehala jakinarazo behar dauz kantinan zein generako instalazioetan sortutako irregulartasunak, baita beraren borondate kanpokoak badira be.

Esleipendunari egotzi lekiozan kalteak badagoz, esleipendunak berak konpondu beharko dauz edo udalak konponduko dauz, ordezko exekuzino bidez, esleipendunaren pentzura.

g) Bermeoko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiaren Kudeaketarako Sistema Integratuan dago Aritzatxu hondartzea kudeatzeko, beraz, sistema horrek ezarritakoa bete beharko dau esleipendunak. Horretarako, eskatzen jakozan agiriak finkatutako epeetan bete beharko dauz (fitxak, etab.) eta udalaren laguntza eta argibideak eskura eukiko dauz.



h) Emakidunak, epe barruan, erabileraren xede diren ondasunak administrazioaren esku, libre eta hutsik izteko betebeharrak dauka eta onartu egiten dau administrazioak daukan ahalmena botatzea erabagi eta berak exekutatzeko.

i) Kontzesioa hirugarren kalte barik eta jabetzaren eskubideen salbu ulertuko da.

j) Emakidadunak legeak eskatzen dauzan bestelako baldintza eta lege betebeharrak betetearen ardura izango dau eta, zentzu horretan eduki leikezan ez betetzeak edo hutsuneak berari bakarrik eragotziko jakoz, Udalak ezelako erantzukizunik eduki barik.

k) EUSKEREAREN ERABILEREA:

1. Esleipendunak edo postuan egongo dan edozein langilek euskeraz jakin beharko dau, gitxienez ahoz; eta nahikoa gaitasun izan beharko dau zerbitzua euskeraz emoteko.
2. Bezeroakaz lehenengo berbea euskeraz izango da beti, bezeroen hizkuntza eskubideen kalte barik.
Ezinbestekoa izango da postuan ezarriko diran errotuluak, kartelak... euskeraz izatea. Euskeraz eta erderaz ipini behar izatekotan, euskerazko testuari lehentasuna emongo jako, hau da, hizkien tamaina bi aldiz handiagoa izango da euskeraz.
3. Aurreko puntuan zehaztutako guztiak kalidadezko euskeraz ipiniko dira. Horretarako, esleipendunak udaleko Euskera Sailaren zerbitzua erabili ahal izango dau.
4. Musikarik ipintekotan, musika lasai izango da eta musika euskaldunak gitxienez %50eko kuota bete beharko dau.
5. Udalak euskerea baino ez dau erabiliko esleipendunagazko hartu-emonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskainiko.

4

8.- ESLEIPENDUNAREN ERANTZUNKIZUNA BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTEENGAITIK

Emakida indarrean dagoen bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo zerbitzua behar bezala ez antolatu, babestu edo bestelakoengatik gertatzen badira. Gauzak horrela, esleipendunaren ardura da emakidaren eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Administrazio Publikoen Ondarea arautzen dauen 33/2003 Legearen 92.7.f). artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Kasu honetan, esleipendunak bere jardueratik sortu leitekez kalteengatik erantzukizun zibilaren aseguruia egin beharko du. Poliza horretan Udal instalazio jabea dan heinean, Udalarari leporatu ahal jakozan erantzukizunak estalita egon beharko dira.

9.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.

Zerbitzu Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9129 Faxa: 94 688 1102
zerbitzuak@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J

2020_aritzatxuko
kantina_bhbt_zuzenketa.doc



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40004456E00E0M2P6O9M4X3

Sinadurea eta data
IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 01/06/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/06/2020
13:17:18

EXPEDIENTE ::
2020IDA_DEK0652
Data: 25/05/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



- a) Arau-hauste arinak izango dira:
- Instalazioak garbitzeko betebeharra lehenengoz ez betetea.
 - Udalak agindutako edo oinarriotan ezarritako arauetako edozein lehenengoz urratzea.
- b) Arau-hauste larriak izango dira:
- Arau-hauste arin 2 egitea.
 - Emakidagaia behar dan legez ez erabiltea edo udalaren baimen barik obrak egitea bertan.
 - Udal zerbitzuetako edozeinen ikuskapen bat ez onartzea.
- c) Arau-hauste oso larriak izango dira:
- Arau-hauste larri 2 egitea.
 - 7.b. puntuan ezarritako mugak eta obligazioak ez betetea.

Arau-hauste arinakaitik 50 eurorainoko isunak jarri ahal izango dira. Arau-hauste larriakaitik 50,05 eurotik 250 eurora arteko isuna ipiniko da, eta oso larriakaitik, 250 euroko isuna eta emakidea bertan behera ixtea.

Arau-hauste arinakaitik eta larriakaitik zigorrak ipinteko Alkatetzaren akordioa beharko da, interesdunari entzunaldia emon eta gero. Arau-hauste oso larriak Udalbatzak zigortuko dauz, jagokozan tramiteak bete eta gero.

5

10.- EMAKIDEA IRAUNGITZEA

Emakidea kasu honeetan iraungiko da:

- a) Emakidearen epea amaitzean.
- b) Titularrak uko egitean. Kasu honetan, 3 hilabeteko aurre abisua egin beharko da, udalak emakida barriri esleitzeko denbora izan daian.
- c) Titularra hil edo enpresea desegitean.
- d) Alde bien adostasunagaitik.
- e) Udalaren erabagiz, interes publikoko arrazoiren batek halan eskatuko baleu, esleipendunari egokitu ahal jakozan kalteordainen kalte barik.
- f) Arau hauste oso larri baten ondorioz, emakidea galtzea eragin dauen zigorra ipini izanagaitik, edota Ostalaritzako edo horrelako jarduerak ipinteari eta euren funtzionamenduari buruzko Ordenantzan aurreikusitako arau hauste baten ondorioz, 46. artikuluaaren arabera, jarduera hilabetetik gorako epean zarratzeko zigorra ipiniko balitz.
- g) Emakida honen xede diran erabilera eta jarduerak garatzeko ahalmena galdu edo desagertzeagatik emakidadunaren objektu sozial edo jardueratik.

Zerbitzu Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9129 Faxa: 94 688 1102
zerbitzuak@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J

2020_aritzatxuko
kantina_bhbt_zuzenketa.doc



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E40004456E00E0M2P6O9M4X3

Sinadurea eta data

IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 01/06/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/06/2020
13:17:18

EXPEDIENTE ::
2020IDA_DEK0652
Data: 25/05/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unitatea:
Erregistro nagusia



- h) Bermeko Udalgaz, legezko errekursoaren zain ez dagoan zorren bat eukitzea.
- i) Foru Ogasunagazko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzazakoak egunean ez eukitzea.
- j) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatik zigor edo administrazio arloko zigorra izatea.
- k) Betebeharren atalean zehaztutako aseguru polizik ez eukitzea edo egunean ez eukitzea.
- l) Betebehar fiskal eta laboralak ez betetea.
- m) Baimendutako erabilera eta jarduerak garatzeko legediak agintzen dauzan betebehar eta baldintzak ez betetzea.
- n) Baimendutako erabilera eta jarduerak garatzeko beharrezko bestelako baimen guztiak ez eukitzea edo egunean ez izatea.

Emakidea iraungitzea, eskudun udal organoak hartutako erabagi bidez egingo da, interesdunari aurretiaz hamabost (15) laneguneko epearen barruan aurretiazko audientzia emon eta gero, ez bada a), b), c) eta d) kasuakaitik iraungitzen dala.

11.- LEGEDI APLIKAGARRIA

6

Emakida honeri honako legedia aplikatuko jako:

1. Administrazio Publikoen Ondarea arautzen dauen 33/2003 Legea.
2. Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen dauen 1372/1986 ED.
3. Sektore Publikoen Kontratuak arautzen dauzan 9/2017 Legea, esleipenari jagokonez.
4. Zuzenbide administratiboko arau orokorrak.
5. Zuzenbide pribatuko arau orokorrak.

Hori horrela, baldintza agiri honetan aurreikusten ez den gutzirako, edozein zalantza argitu eta emakidearen baldintzak interpretatzeko, aitatutako legediak aurreikusitakoa jarraituko da zehatz.

12.- ERABAGIEN IZAERA JURIDIKOA ETA ADMINISTRAZINO BIDEARI AMAIERA EMOTEA

Emakida honen ondorioz hartu leikezan erabagien izaera administratiboa da eta bide administratiboari amaiera emongo deutsoe. Hori horrela, zuzenean aplikagarriak izango dira, Udalaren aurrean edota Administrazioarekiko Auzibidean errekurritzeko eskubidearen kalte barik.

Zerbitzu Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9129 Faxa: 94 688 1102
zerbitzuak@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J

2020_aritzatxuko
kantina_bhbt_zuzenketa.doc



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E40004456E00E0M2P6O9M4X3

Sinadurea eta data

IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 01/06/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/06/2020
13:17:18

EXPEDIENTE ::
2020IDA_DEK0652
Data: 25/05/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unitatea:
Erregistro nagusia



Data eta sinadura orri oinean

2020_aritzatxuko
kantina_bhbt_zuzenketa.doc

Zerbitzu Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9129 Faxa: 94 688 1102
zerbitzuak@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal
dozu.

Kodea:
07E40004456E00E0M2P6O9M4X3

Sinadurea eta data

INIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 01/06/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/06/2020
13:17:18

EXPEDIENTE ::
2020IDA_DEK0652
Data: 25/05/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



**I. ERANSKINA
ESKAERA**

.....Jaun/Andreak,
.....zenbakiduneko NANarekin,
helbidea daukana,

ADIERAZTEN DU

2020ko uda denboraldian Aritzatxu hondartzeko kantina ustiaketa baldintzak ezagutzen dituela eta zozketan parte hartu nahi duela.

Bermeon, 2020korenan.

Sinatuta:
NAN:

8

Zerbitzu Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9129 Faxa: 94 688 1102
zerbitzuak@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J

2020_aritzatxuko
kantina_bhbt_zuzenketeta.doc



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40004456E00E0M2P6O9M4X3

Sinadurea eta data

IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 01/06/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/06/2020
13:17:18

EXPEDIENTE ::
2020IDA_DEK0652
Data: 25/05/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



II. ERANSKINA
Zinpeko Aitorpenaren Eredua

.....Jaun/Andreak,
.....zenbakiduneko NANarekin,
helbidea daukana,

KONTRATAZIO MAHAIBURUAREN AURREAN AITORTZEN DU

Kontratatzeko debekurik ez daukala,
Udalean zigor-espediterik edegita ez daukala eta,
Udalarekin zorrik ez daukala.

9

Bermeon, 2020korenan.

Sinatuta:

NAN:

Zerbitzu Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9129 Faxa: 94 688 1102
zerbitzuak@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J

2020_aritzatxuko
kantina_bhbt_zuzenketeta.doc



Agiri hau benetakoa dala udalaren
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal
dozu.
Kodea:
07E40004456E00E0M2P6O9M4X3

Sinadurea eta data

IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 01/06/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/06/2020
13:17:18

EXPEDIENTE ::
2020IDA_DEK0652
Data: 25/05/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

